

# noaua

**Andoni Egaña eta 'Bi arreba',  
igande honetan Sutegin**

**Kilometroak 2015  
prestatzen hasi dira  
Udarregi Ikastolan**

**Larunbatean, Dantza Eguna**



**Sagastiak Loretan,  
Sagardo Egunaren atarian**




# antenas **Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.  
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99  
info@antenastelemar.com



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

*Iritsi da  
Udaberria*



- Garaiko landareak zure lorategi eta balkoitarako
- Amaren egunean era guztietako aukerak oparitzeko

Egun osoa irekia • San Esteban auzoa • 943 362 255 Faxes: 943 366 054 • [urtinea@urtinea.com](mailto:urtinea@urtinea.com)

## Albiste iruditan

# Badator belaunaldi berria

**A**dituek diotenez, bote luzean edo laxoan jokatzeko ohitura oso zabaldua zegoen garai batean. Euskaldunek beren erara moldatu zuten Paristik zetorren *jeu de paume* delako jokoa, egungo laxoaren eta errebotearen oinarriak finkatuz. Gaur egun, euskaldunen artean pasio handiena pizten duen pilota jokoa esku pilota bada ere, bada joko zuzenari eusten dion herririk. Horien artean, Zubietak. Aldameneko argazkian ageri diren gaztetxoak, hain zuzen, zubietarrak dituzue. Xuban, Gorka, Elur eta Garazi. Antton Arrillaga entrenatzailearekin aritzen dira, jolasean eta errebote arauak ikasten. Ostiraletan elkartzen dira, arratsaldeko 17:30ean. Kerman Errekondok ekarri digun argazkian behintzat, gogotsu ageri dira.



Ostiraletan elkartzen dira Zubietako frontoian.

## Laburrean

### Azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratzea burutuko da, apirilko azken ostiral honetan, hilaren 26an. Ohi bezala, Herrirak arratsaldeko 20:00etarako deitu du mobilizazioa Mikel Laboa plazan.

### Odol ematea, maiatzaren 6an

Azkenekoz martxoan izan zen, eta bi hilabete-oren ondoren, hurrengo hitzordua maiatzaren 6an izango da. Ohiko lekuan eta ordutegian: arratsaldeko 18:00etatik 20:30era, Usurbilgo anbulatorioan.

### D3M eta Askatasunakoen absoluzioa berretsi dute

Espainiako Auzitegi Gorenak, D3M eta Askatasuna auzietan iaz epaitu zituzten herritarrak absoluzioa berretsi du. Usurbildar bat dago tartean, Agurtzane Solaberrieta. Eta berarekin batera, iaz epaitu zituzten beste hamar lagunak.

# noaúa

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// [elkartea@noaúa.com](mailto:elkartea@noaúa.com) /// [www.noaúa.com](http://www.noaúa.com)  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ana Aizpurua.

**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publikitate:** Bea Alda,  
[publizitatea@noaúa.com](mailto:publizitatea@noaúa.com).

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**  
[erredakzio@noaúa.com](mailto:erredakzio@noaúa.com):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,  
Aizpea Aizpurua.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa  
Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria  
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,  
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,  
Denis Elortza, Pello Aranburu,  
Xabier Aranburu, Inma Balda,  
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,  
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia  
Torregarai eta Udarregi ikastola.  
**Tirada:** 2.800 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.  
**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Joxe Piñas

## Txakur jabeak

**G**auko hamaikak dira eta gizon honek egunari amaiera emateko momentu lasaia hartzeko ohitura dauka; horretarako herriko parke batetik paseotxo bat ematen du. Ez doa bakarrik, txakurrarekin doa. Honek ere eskertzen du paseoa, buztana ederki astintzen baitu. Gizonak eguneko tentsioak askatzeko aprobetxatzen duen bezala, txakurrak behar fisiologikoak askatzen ditu. Etxera bueltatzen direnean, gizonen tentsioak ez dakit non gelditzen diren baina txakurraren kaka bai; han bertan, Erreka Txikiko belazean.

Eguerdia da, eta hamar bat urteko neskatxo bat txakurrarekin atera da. Honek ez dio gehiago eusten eta espaloian askatu ditu bere beharrak. Neskak poltsikotik poltsa bat ateratzen du eta gorotza bertan sartzen

du. Orain biak lasai asko paseotxoan dabilta.

Espaloian tabernak jarri dituen aulkietan eserita daude, pote bat hartzen. Hiru dira, txakur bana, guztira sei. Txakurrak aske. Norbaitek lotzeko eskatzen dienean, ohiko erantzuna entzuten da: lasai egoteko, ez dutela koska egiten.

Herriko ume parke batean daude, alaba txikiarekin etorri da bikotea. Eta txakurra beraiekin ekarri dute ere bai. Ume asko inguratzen zaio laztantzera. Hasieran eskertzen ditu laztanak baina gero astuna egiten zaio eta urdurijartzen hasten da. Jabeak jarra honetaz jakinaren gainean daude eta horregatik txakur eta umeei ez diete bistarik kentzen; alde egiteko garaia dela erabakitzen dute.

Goizean goiz atera dira, txakurra

eta jabea, presarik biok eta ezkutuan jabea. Txakurrak portaletik bi metro-tara mokordo bat ipini du, espaloia- ren erdi-erdian, han geldituko dena denborak lehortu eta haizeak eraman arte... edo norbaitek zapaldu arte. Jabeak zer pentsatzen duen ez dakigu...

Jarrai genezakeen, txakur eta beraien jabeen arteko pasarteak kontatzen, denok buruan dezente dauzkagu eta. Batzuk politikak eta dibertigarriak izango dira, beste batzuk errespetuzko jarrera adierazten dutenak izango dira soilik. Baina tamalez, istorio askok berekoikeria, utzikeria eta komunitate batean bizitzeari oinarriko errespetu faltaren adibideak izango dira.

Usurbilen, kaskoan zein auzoetan, belaze eta parke dezente dauzkagu,

espaloizabalak, arkupeak eta noski kaletxoak; inguruan zelaia, erreka ertzak... Beste herrietatik bizitzera etorri den jendearentzat baliabide aipagarriak dira hauek. Jaiotzez usurbildarra denarentzat ere bai. Bizi kalitatezko on baten ezaugarriak, eta elkarrekin gozatzekoak. Horrela baloratzen ez duenarengandik, espero daitkeena gutxienez baliabide hauek errespetatu ditzala; garbi mantentzen eta txakurren koska arriskuengandik libre. Bere kabuz hori errespetatzeko gai ez dena, norbaitek errespetatzera behartzen badu, ez dadila kexatu. Herri batean elkarbizitzarako oinarria baita: baliabide naturalak edota ondasun publikoak zaintzea eta errespetatzea alegia. Aldiz, errespetatzen duten txakur jabeak eskerrak eman eta horrela jarrai dezatela.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Joxe Piñas** | Idoia Torregerai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

### Ika-Mika

## Giza Eskubideen Zinemaldia Donostian

**X**I. edizioa da aurtengoa. 2011ko urriaren 20aren ondoren II. edizioa. Donostiara hurbildu eta hainbat gai jorratzen dituzten proiektzioak ikusi daitezke egun hauetan. Munduarekiko norbere ezagutzak ezagutzat berriekin aberasteko aukera interesgarri eta mamitsua. Gaur egun baieztatzen da zineak eskaintzen duela lehoi bat hunkitzen, dibertitzen eta pentsarazten laguntzen diguna, mundua ulertzeko aukera baliagarria alegia. Egundun Donostiako Boulebarrean giza eskubideen (maiuskulaz?) proiektzioa gertatu da, benetakoa. Non gauden eta nora joan nahi dugun argitzeko baliagarria. Munduko beste zonalde batean gertatua izan balitz (Ken Loachek filmatua, edo Libanoko produktzio independentea izatea, edo Seatlen gertatua, edo Berlineko unibertsita-

tean bizitua, edo Iranen emakumeen eskubideen aldeko itxialdia izatea...) erosoago eta gusturago kontsumituko genukeen. Agian, eredu-garria eta modernoa kontsideratu eta lagunei gonbidapena luzatuko genieke. Baina ez, hemen gertatu da, gure etxetik oso hurbil. Aske Gunean gertatutakoa gertutik jarraitu dut: bideoak ikusi, kronikak irakurri, komunikabide ezberdinen balorazioak kontrastatu; eta bertaratzea beharrezkoa sentitu dut. Bizitu nahi nuen bertan gertatzen ari zena, obligazio morala izan da. Lehen esan bezala ez al da maiz gertatzen urrutiko kontuei errazago begiratzen diegula hemengoei baino. Uste dut badela garaia geure eskema politikokoak berri-tzeko, norbere trintxera politikotik atera eta gertu bizi dugun hori sentitzeko, hausnartzeko eta testuingu-

ruan kokatzeko edo momentuko testuinguruan bere horretan bizitzeko. Lan politikoa egiteagatik sei gazte sei urteko kartzela zigorra betetzera kondenatuak. Gogorra, itzela, biolentzia zuzena ia oharkabean. Eta herresi baketsu bat eraikiz bideratu dute.

Goraipatzekoa da zenbait ardura-dun politikoei bertan egin duten lana, han bildutakoek azaldutako erresistentzia zibila, elkartasun aktiboa eta ez-biolentziarekiko konpromisoa. Lokarrik ere sendo azpimarratu du Donostian gertatutakoa, eta bide batez gogor salatu du epai honen helburua eta giza eskubideekiko eraso. Senda politikoa berria marraztu beharra dugun garai honetan: indartu ditzagun horrelako inizatibak, sortu ditzagun protesta eta geure eskubideak defendatzeko formulak, propioak ez diren eremu politikoriatar

hurbildu gaitzean, zubiak eraiki ditzagun... gainontzean espainol gobernante zerri horiek erasotzen jarraituko dute. Ez ahaztu, Aurore Martin atxilotze saiakera izan zenean Baionan kolore guztietako politikariak egon zirela lehen leerroan. Hemen berriz horrelakorik ez eta gainera egon ez direnak ondoren balorazio hutsalak egin dituzte.

Donostian gertatutakoa antzerki moduan juzgatzea, egoera onartezin eta ezohiko moduan baloratzea oso maila eskasekoa iruditzen zait. Boulebarrean Giza eskubideen proiektzio erreala eta gordina baina duina eta benetakoa izan da. Eta erreportajea grabatzeko arazo larriak izan dituzte bertaratutako kazetariak Ertzaintzak izan duen jokaera tarteko.

**Haritz Zubiaur Blasko**

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: maiatzak 3. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 29.

# Udaletan mozioak aurkeztuko dituzte, Zero Zabor taldeek



Zero Zabor taldeetako ordezkariak, Potxoenean.

**G**ipuzkoako hainbat udalerrietan osatuak dauden Zero Zabor taldeek mozioak aurkeztuko dituzte euren herrietako udaletxeetan. Konpromiso etikoa hartzea eskatuko diete, aipatu erakundeoi. Hondakinak murriztu, birziklatze emaitza hoberenak dituen bilketa sistema martxan jarri eta herriarren parte hartzea bultzatzeko konpromisoa bere egitea galdegingo diete udalbatzei hain zuzen.

Mozioan jasotzen dutenez, "gure herrian sortutako zaborra jasotzen duten herrietako biztanleei ahalik eta kalterik txikiena eragiteko" konpromisoa da Udalei hartzea eskatu nahi dietena. Agerraldi mahaian honako aldarrira irakur zitekeen: "Errauste plantak eta zabortegi kutsakorak: burua ondo daukanak ez ditu bere etxe ondoan nahi, bihotz ona daukanak

besteen etxe ondoan ere ez ditu nahi. Zero Zabor, burua eta bihotza".

## "Ez gara geldi geratuko"

Hondakin kudeaketari loturiko eztabaida desitxuratzeko eta hausnarketa prozesua "jasaten ari den mutilazio saioa" salatu zuten. Baita errauste planta helburu duten "sektore ekonomiko-politiko indartsuen", bestelako kudeaketa ereduaren aurkako "kanpaina gogorak" ere. Testuinguru horretan kokatu zituzten, besteak beste, "hondakin bilketa, ondoren eman daitezkeen tratamenduetatik bereizteko ahalgina", edota "bilketak udalerriri bakoitzean bakarrik eragiten duela" aditzera ematea. Honen guztiaren aurrean argi zioten Potxoenean, Zero Zabor taldeek: "ez gara geldi geratuko". Informazio gehiago: [gipuzkoazz.com](http://gipuzkoazz.com)

## Kartoiarekin egindako buruhandi tailerra

Bi eguneko ikastaroa izango da; saioak, apirilaren 27an eta maiatzaren 4an. 9:30-13:30 artean Usurbilgo Gaztetxean, Hitz Aho Guraso Elkarteak antolatuta. Izen ematea itxita dago.

## Patinatze ikastaroa

Saioak maiatzaren 4, 11, 18 eta 24an burutuko dira, arratsalde 16:00etatik aurrera, Udarregi Ikastola aurreko patio boro-bilean. Einean Guraso Eskolak antolaturiko ekimenean izena emateko, deitu 609 41 38 83 zenbakira, maiatzaren 1, 2 eta 3an, 10:00-11:00 artean. Prezioa, 5 euro.

## Emakumeen ahalduztze ikastaroak

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak emakumeen ahalduztze ikastaroak antolatu ditu, ekainera arte. Hiru ikastaro gutzira; "biodantza", "Gure arbasoak: emakumeen leinuak" eta "Krisiak eta doluak". Ikastaro guztiak abiatu diren arren, astelehenera arte, apirilaren 29ra arte irekita jarraituko du izen emateak, 943 377 110 telefono zenbakian edota [parekidetasuna@usurbil.net](mailto:parekidetasuna@usurbil.net) helbidera idatzita. Izen ematea doakoa da.

**Azken ordukoa:** "Erotikaren bideetatik" tailerra bertan behera geratu da.

## Ika-Mika

# Ertzaintzaren papera

**H**asteko eta behin, doazela besarkada bana azken egunotan Herri Harresia osatu duten guztiei; espetxeratuei, espetxeratzeko daudenei, senideei, eta jakina, elkartasuna helburu, Ertzaintzaren indarkeria sufritu duen orori. Jarraitzeko, zorionik beroenak Bulebarretik Euskal Herrira eta nazioartera bertako bizipen guztiak zabaltze lanean ibili direnei, ez baita gutxi izan burutu duten lana "boom" mediatikoa lortzeko.

Milaka sentsazio eta bizipen joan dira azken egunotan. Euskal Herrian azken urteotan eman den elkartasun eta konpromiso ekintzarik handiena

bihurtu da Herri Harresia. Hasierako egunetako zutabeetatik hasi eta behin atxilotze agindua iritsi zenean bertan igarotako gau ordu bakoitza bizipen ikaragarria izan da.

Ezin ukatu egun gazteriak dugun aldaketarako, iraultzarako, elkartasunerako grina. Argi geratu da gazteon indarrak elkartuz, sinergia probestu eta indar hauek biderkatzeko gai garela.

Era berean, gure auzitan jarri nahi dugu azken asteotan guztion ahotan egon den gaia, Iñigo Cabacasen heriotzaren urteurrenetik hasi, Ekaitz Ibeororen atxilotzarekin jarraituz, eta zalantzarik gabe, Herri Harresia apur-

tzeko erabilitako indarkeria eta hurrengo orduetako mobilizazioetan izan zuten jarreraren harira: Ertzaintzak herri honetan jotzen duen papera. Eta horretarako, galdera sinple bat planteatu nahi dugu norberaren hausnarketarako:

- Poliziak Herri Harresi batekin atzera egin beharrak (Herri Harresia- ren lehenengo gaueko gertakariak ari gara) ez al du erakusten noraino dabilen hemen polizia guztiz tokiz kanpo?

Iñigo Urkullu lehendakariak 2012ko Urrian bere twitterrean argitaratutako hitzak ekarri nahi ditugu lerro hauetara: "Nuestro compromiso es

transformar la capacidad de la Ertzaintza y sus agentes en una policía preventiva, cercana y a pie de calle".

Azken hilabeteotako Ertzaintzaren mugimenduak ikusita, non demonstre geratu da konpromiso hori?

Ezin aipatu gabe utzi herri honetan gazteriek sufrizten duen jazarpen politikoa, gai sakona lerro hauetan garatzeko. Beraz, amaitzeko, eta aurrekoarekin loturik, hausnarketarako azken galdera: Zertarako behar dugu "gure polizia", "euren legeak" beteazteko bakarrik bada?

Euskal gazteria aurrera!

ITAYA eta Usurbilgo Ernai

# Eskualdeko manifestazioa Hernanin, maiatzaren 1ean

**B**uruntzaldeko LAB sindikatuak eskualde mailako manifestazioa deitu du maiatzaren 1erako. Hernaniko Gudarién Plazatik abiatuko da eguerdiko 12:00etan, 'Borrokatu, matxinatu eta irauli Euskal Herria' lelopean, "erreforma eta eraso guztiei aurre egiteko prest gaudelako eta hemen, Euskal Herrian eta Buruntzaldean alternatiba eraikitzen hasi garelako".

Eredu sozial berri bat defendatzen du LAB sindikatuak, "aberastasun banaketan oinarrituko den lan harreman eta babes sozial eredu berria" Euskal Herrirako. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen dute "burujabetza politikoa eta eko-



Manifestazioa eguerdiko 12:00etan hasiko da.

nomikoa" izatea. Maiatzaren Lehenak berebiziko garrantzia du aipatu sindikatuko ordezkarien ustez, "urtez urte gobernuak eginiko erreforma desberdinen bidez krisi ekonomikoan sakotzen ari garen une honetan". Neurriok ekarritako ondorioak gogorarazi

zituzten beste behin, "langileak pobretzea eta honen kontura aberatsak aberatsago egitea, eskubideen murrizketa eta zerbitzu publikoen gutxitzea".

Zenbakietan azken urteotan Buruntzaldean izandako langabezia tasaren gorakada nabar-

menu zuten. "2008ko abenduan 2979 langabetu egotetik, gaur egun 4855 langabetu egotera pasa gara %15,43ko langabezia tasarekin". Gainera, "eskualdeko langileria zati handiena hitzarmenik gabe gertatzeko arriskuan dago" ohar-tarazten dute.

## GREBA DEIALDIA

Euskal Herriko gehiengo sindikalak greba orokorra deitu du maiatzaren 30erako. Deitzaileen artean dira, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU, CGT-LKN eta CNT sindikatuak, eta baita 60tik gora eragile ere. Greba deialdia, Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabarako egin dute, "Eskubide sozial eta laboral duinak" lelopean.

# Denis Itxaso gezurretan dabilela dio Usurbilgo Bilduk

**D**enis Itxaso PSE-EEko kidearen balorazio batzuk oihartzuna izan zuten aurreko astean, Gipuzkoako prentsa idatzian. Usurbilgo tasei buruz ordezkari sozialista donostiarrek baliatu zituen datuak okerrak direla dio Jose Maria Rivadeneyra Bilduko udal zinegotziak. NOAUA'ra igorri duen idatzian honela dio: "Usurbildar asko harritu gara joan den asteburuan erdarazko zenbait hedabideetan argitaratutakoarekin: PSE-EEren buruzagia den Denis Itxasoren arabera, 2009-2011 tartean Usurbilgo Udalak 'esponentzialki' igo zuten hondakin-tasa, eta lortutako dirutzarekin atez ate sistemaren gastuak ordaindu ditu. Eta hori esateko Herri-kontuen Euskal Epaitegiak berriki egindako txostena iturri gisa eman du. Harrigarria benetan, orain dela hila-bete, atez atearen 4. urteurrena zela eta, Udalak banatutako liburuxkan kontrako ideia zabaltzen zuen: atez atearen balantze ekonomikoa oso ona izan da, eta, hori, Gipuzkoako hondakintasarik txikienetako bat edukita lortu dugu".

Rivadeneyraren esanetan, "argi eta garbi, norbait gezurretan ari da, eta hori argitu behar da. Lan erraza edozein usurbildarrentzako: bere hondakinen ordainagiria begiratzea besterik ez du. 2009an, 76 euro, 2010, 76 euro, eta 2011, 78 euro, gutxiago konpostatzen badu. Usurbildarra ez denak, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean egiaztatutako ditzake zenbaki horiek. Non dago Denis Itxasok dioen 'igoera esponentziala'? Edo Euskal Epaitegia dabil gezurretan eta Denis gizajoa ez da konturatu?", galdera horiek luzatzen ditu Usurbilgo Ingurugiro arloko zinegotziak.

## Gezurarekin, beldurra zabaltu

Euskal Epaitegiak dioena honakoa da: hiru urte horietan tasek eragindako diru-sarrerak %81a handitu egin direla. "Adi", ohartarazi nahi du Rivadeneyrak, "ez da gauza bera diru-sarrerak handitzea eta tasak igotzea. Diru-sarrerak handitzen dira, kasu honetan, 2010ean poligonoak biltzen hasi zelako udala (lehen San Markok biltzen zituen), eta, ondorioz, poligono-

etako enpresak bere hondakin-tasak udalari ordaintzen hasi ziren (lehenago San Markori ordaintzen zioten). Epe horretan, tasak %2,6 basterik ez dira igo, KPI baino gutxiago. Hori guztia Denis Itxasok aipatutako Euskal Epaitegiak egindako txostenean azaltzen da. Orduan, bietako bat: edo Denis Itxasok ez daki ondo irakurtzen, edo gezurretan aritu da, Euskal Epaitegiak emandako datuak nahita desitxuratu jendea nahasteko".

Jose Maria Rivadeneyra Bilduko zinegotziarentzat, gertatutakoak erakusten du "beste behin, nolakoa den Denis Itxasoren eta PSE-EEren jardueraren politikoa: ez dute zalantzarik gezurretan ibiltzeko horrekin errenta politikoa lortzen badute. Badakite bere gezurra agerikoa izango dela usurbildarrentzako, baina baita ere badakite gipuzkoar gehienek bere gezurra besterik ez dutela entzungo. Usurbilen ez dute bozka askorik galtzeko, baina, aldiz, bere azken gezur honekin, gipuzkoar askoren iritzian eragin dezakete, atez ate garestia ateratzen denaren beldurra zabaltuz".



Bilduko udal zinegotzia da Jose Maria Rivadeneyra.

## "Onura politikoa den bila"

Honengatik guztiagatik, Jose Maria Rivadeneyrak gogor kritikatu du PSE-EEren politika gai honetan: "jakin badakite atez ate sistemarekin dirutza aurretiko gurekela Gipuzkoan, baina, hala ere, kontrakoa diote. Guztion kalte ekonomikoa eragiten dute, baina bere onura politikoa espero dute. Horrelakoa da politikagintza Denis Itxaso eta PSE-EErentzat. Edo, behintzat, hori da bere jarduerak erakusten diguna. Denis Itxasok gezurra esan zuen Getarin, eta bera baino lehenago zen atarin".

# Gazte espetxeratu berriei elkartasuna adierazi die Ernaik

Larunbatean aurkeztu zuten Usurbilgo Ernai, gazte antolakunde berria. Bezperan, Donostiako Bulebarreko Aske Gunean atxilotu zituzten gazteen harira, lehen balorazioa egin du bilgune berriak: "Ernai Gazte Antolakundeak bere babesik handiena, besarkadarik bero eta sentikorrena adierazi nahi die bere senide eta lagunei. Haietzako gure animorik indartsuenak eta txalo zaparrada bero bat!". Bulebarrean bizitakoa eta herriak erakutsitako jarrera eredugarria izan dela diote.

"Aske gunean eginiko herri-harresian beraien porrei elkartasunarekin erantzuten genien, mehatxuei auziperatuak maite genituela oihukatuz, beraien eraso bakoitzari kemen, maitasun eta indar gehiagoz eran-



Ernai gazte talde berria aurkeztu zen aurreko larunbatean.

tzun zaie eta hauxe da bidea. Hauxe da bidea herri-harresia adreiluz adreilu osatu eta epaiketa politiko guztiekin bukatzekoa, ez baitiegu eramaten utziko", adierazi du Usurbilgo Ernai. Aldiz, espainiar estatuaren eta EAJ-PNVren jarrera gaitzesten dute. Gatazkaren konponbidea blokeatzeko hautua egin dutela salatzen dute, "Donostiako 9 gazte espetxeratuz. Honi, Ertzaintzak Aske

Gunean erabilitako bortizkeria gehitu behar zaio, baita auziperatuz gain eginiko beste sei atxilotetak ere". Laster, gazte gehiago izango dira epaituak. "Horretarako beharrezkoa izango da guztion parte hartzea", ohartarazi dute. Epaiaketa politiko hauek eten beharrak daudela diote, helburu bakarra baitute, "gatazkaren konponbidea blokeatzeko eta hau ezin dugu inolaz ere onartu".

## Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga, espetxe berean dira orain

Urte eta erdi bananduta egon ostean, Alacanteko Foncalent espetxean elkartu dituzte Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga euskal presoak. Joan den asteazkenean heldu zen Olatz, Patxi zegoen aipatu kartzela honetara. Orain arte, Brievako espetxean (Avila) egon baita Lasagabaster, 2011ko azaroaren 24an biak ezkondu eta gutxira, banandu zituztenetik. "Gora-behera administratibo ugari eta hainbat atzerapen pairatu ostean, 2011ko azaroaren 24ean ezkondu ziren han bertan eta handik aste gutxira banandu egin zituzten. Geroztik Olatz Brievako (Avila) espetxean izan da. Urte eta erdi honetan epaileari eskaerak behin eta berriz eskatzen aritu dira elkar ikusteko aukera eman diezaieten. Azkenean joan den martxoan onartu zieten eskaera eta orain biak ala biak Foncalenteko espetxean daude, Euskal Herriatik 780 kilometrotara", berri eman du Usurbilgo Sortuk.

## Sorturen Herri Kontseilua aurkeztu dute

Ostiralean aurkeztu zuten Sorturen Usurbilgo Herri Kontseilua. Ekitaldia, Aitzaga aurrean burutu zen, errezitaldi eta musikak lagunduta. "Sozialista, independentista, feminista eta euskalduna eta egungo ezkerak dituen erronken bilgunea izango da Sortu", Herri Kontseiluak berri eman zenez. Ekitaldian, gogoan izan zituzten, ordu batzuk lehenago Donostiako Aske Gunean atxilotu zituzten

gazteak, preso direnak. Baita urteotan zehar "ezker abertzaleko militantee geginiko lana". Azken urteotan bizitako klandestinitatea nabarmendu zuten. Baita izan diren edota datozen epaiketak ere, usurbildarrak tartean direla. D3M eta Askatasunako auziperatuen absoluzioa berretsi baitu Espainiako Auzitegi Gorenak, tartean Agurtzane Solaberrieta herritarrarena. Beste usurbildar bat, Marisa Alejandro, epaiketaren zain dago.



Argazkian, Sortuko Herri Kontseilua osatuko duten kideak.

**Jose Aizpurua**  
**Unanue eraikuntzak S.L**  
 teilatuak eta fatxadak  
 943 37 38 79 - 620 80 01 86  
 Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

**JUANTXO**  
 BURDINDEGIA  
 Zubiaurrenea 8  
 943 370 008

**BORDATXO**  
 taberna  
 Pintxo Bereziak  
 943 37 10 42  
 Zubiaurrenea 5

# Andoni Egaña: “Chopin eta Xenpelar lotuz, kontakizun bat osatu dugu”

Igande honetan Usurbilen izango da Andoni Egaña. Baina ez du bapateko saiorik eskainiko. Eta beste bertsolari batzuekin etorri ordez, pianojole batekin arituko da Sutegin. ‘Bi arreba’ izeneko saioan, Xabier Lizaso musikaria izango du bidelagun. Chopinen doinuak eta Xalbadorren bertsoak dira ikuskizunaren osagai nagusiak. Harrera beroa izaten ari dira saio honekin, eta gure artera une ederrean iritsiko dira.

**Antzerki saio bat dela dio Udalak banatu duen kultur agendak.**

**Andoni Egaña.** Ez, ez da antzerkia. Emankizun honetan Xabier Lizasok Chopinen obrak jotzen ditu pianoarekin eta nik Xenpelarren bertsoak kantatu. Xabier Chopin zalea da eta nik Xenpelar gustuko dut eta konturatu ginen antzekotasun handia zutela biek. Biak lotuz, kontakizun bat osatu dugu eta ikuskizunean esplikatzeko dugu zertan zuten antza biek.

**Bat-bateko bertso-saiorik ez duzu egingo, beraz.**

**A. E.** Xenpelarren bertsoak dira baina neuk jarritako bertsoak ere kantatzen dira. Kasu horretan, herrira moldatzen gara eta Usurbili jarriak ere izango dira batzuk.

Inprobisazioaz, ba begira, nik saio honetan ez dut inprobisatzen baina Xabier Lizaso piano joleak bai.

**Hilurren, arreben laguntza izan zuten Chopin musikariak eta Xenpelar bertsolariak. Hor-tik izenburua, ezta?**

**A. E.** Bai, hori da. Biak oso gazte hil ziren, Xenpelar 34 urterekin eta Chopin 39 urterekin. Arreba bana izan zuten azken egunetan ondoan. Hori izan zen gure emankizunaren ardatza edo txispa piztu zuena.

**Emanaldi ugari egin dituzue. Eta badituzue gehiago begibistan. Horrelako erantzuna espero al zenuten?**



Igande honetan, ‘Bi arreba’ ikuskizuna eskainiko dute Sutegin.

**A. E.** Ez genekien zer nolako erantzuna izango genuen. Nahikoa berezia delako saioa. Baina nik konfiantza baneukan, oriotarra kristoren pianojolea delako. Bera entzuteagatik bakarrik merezi du. Uste dut aukera ona dela bertso munduko jendea piano mundura hurbiltzeko, eta alde-rantziz.

Emankizunei dagokionez, urria amaieran hasi ginen eta hogeitaka egin ditugu eta beste batzuk baditugu hitzartuak. Ez dakit, urtebetean berrogei inguru egingo bagenitu, ba ondo. Gauzak dau-den bezala...

**Usurbilgo Sutegin arituko zara igandean. Ia ia etxean bezala aritzea izango da zuretzat.**

**A. E.** Bai, Usurbilen bertsoan askotan aritu izan naiz. Gainera etxetik hurbil dago eta oriotararentzat (Xabier Lizasorentzat) are hurbilago, ezta? Zarautzar bat eta oriotar bat Usurbilen! Beno, bertso batzuk idazteko gai polita da, aprobetxatuko dugu...

Zer esango zenieke zalantzan direnei.

**A. E.** Nik aholkatuko nioke jendeari beldurrik gabe etortzeko. Saioa azkar pasatzen dela eta piano horrekin, esplikazioek askoz ere interes handiagoa dutela.

## ‘Bi arreba’, Sutegin

- Apirilak 28 igandea.
- Sutegiko auditorioan, 19:00etan.
- Sarrera: 10 euro Usurbilgo Txiriboga tabernan, NOAUA!n eta egunean bertan.
- NOAUA!ko bazkideek 8 eurotan eskura dezakete sarrera, baina alde aurretik eta soilik NOAUA!ko bulegoetan.

## CAF-Elhuyar sari banaketa Usurbilen

Usurbilen, Kaxkoan bertan banatuko dira aurtengo CAF-Elhuyar Sariak. Ostegun honetan, apirilaren 25ean arratsaldeko 18:00etan, Sutegin ospatuko den ekitaldian.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

Josue Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**izAgirre**  
ELEKTRIZITATEA  
943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirrelektrizitatea@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

**TAXI 24h**  
Jose Etxabe USURBIL  
677 37 34 66  
943 36 21 78



# 1. SAGASTIAK Ioretan ospakizuna

Sagarra eta Sagardoaren Kultura eta Turismoa **BIZI SAGARDOA**

## Sagarrondoan loraldiaren gorazarre ekimena Usurbilen



### Apirilaren 27an larunbat goizez

Sagasti Ioretuetan barrena ibilaldia, Jakoba Errekondo paisajistarekin. Alkartasuna, Usurbilgo Baserritarren Kooperatibatik abiatuta. GOIZEKO 09:30ETAN

### Maiatzaren 7an astearte arratsaldez

"Usurbilgo sagastien inbentarioa eta sagar ekoizpena" Ikerketaren aurkezpena. Leire Jauregi Nekazaritza Ingeniariaren eskutik, Potxoenean. Ilunabarreko 19:30ETAN



### Maiatzaren 15ean asteazkena egun osoz

SAN XIDRO EGUNA: 10:30 Meza Salvatore Elizan, Ondoren Hamaitakoa eta Herri kirolak frontoian, 14:30: Bazkaria Artzabalen, Txarriak Alkartasun maiatzaren 11rarte. 18:30: Herriko erraldoi konpart sarekin pintxo poteoa

### Maiatzaren 18an larunbat arratsaldez

Berreskuratutako XVI. mendeko Dolare-baserria ezagutzeko bisita gidatua, Luis Alberdi arkitektoa eta Jakoba Errekondo paisajistaren eskutik. Aginagako SARIAANDI baserrian, ARRATSALDEKO 17:00ETAN.



### Maiatzaren 19an igandea egun osoz

32. Sagardo Eguna, Usurbilgo plazan, EGUN OSOZ. Sutegin "Usurbilgo baserrietako dolareen argazkiak" erakusketa

### Maiatzaren 23an ostegun arratsaldez

Usurbilgo sagarkien dastaketa: Sagar-dultzea, muztioak eta sagardoak; Guillermo Castaños enologoaren gidaritza: Aitzaga Elkarte, ilunabarreko 19:30ETAN



### Ekainaren 1ean larunbat goizez

Sagastien udako inausketa ikastaroa, teorikoa eta praktikoa. Aitor Etxeandia Nekazaritza Ingeniariaren eskutik, Potxoenean, GOIZEKO 09:00ETAN

# Ospatzeko moduko garaia

SAGARRONDOEN LORALDIARI GORAZARRE EGINGO ZAIO JARDUNALDI BATZUEN BITARTEZ

**S**agarra, sagastiak, sagastien paisaia, sagardoa, eta eremu honen bueltan bizi diren herritarrek protagonistak izango ditugu murgilduak gauden udaberri honetan. Sagastiak loretan ditugu eta urte sasoi honetako loraldia ospakizunerako baliatu du eragile talde batek, hurrengo asteetan ekitaldi sorta antolatzeko. Hitzor- du ziklo honen inguruko zehaztasunak dakartza, Jakoba Errekondok.

## Nondik dator ekitaldi sorta hau antolatzeko asmoa?

**Jakoba Errekondo.** Sagardoaren inguruan ekimen gehiago burutzeko sortu da ideia hau. Guretzat une hau, sagastien loraldia, ospatzeko urte sasoi bat da. Udaberria etorri da eta sagastien loraldiak gure paisaiari beste itxura ematen diola iruditzen zaigu. Eta ez itxura bakarrik, hori da gero sagardoa bihurtuko dena. Hori aprobe txatuz, sagardoaren munduan gauza gehiago eta desberdinak badaudela azaltzeko sasoi bezala azaldu nahi dugu. Horregatik antolatu ditugu, ikerketa aurkezpena, bisitaldia edota ibilaldia ohiko ekintzetatik aparte. Eta gero ohiko hitzorduak: katak, Sagardo Eguna, erakusketa...

## Sagardo Eguna ere egitarau honetan txertatu duzue?

**J. E.** Sagardo Eguna maiatzaren 19an izango da. Sasoi honetan tokatzen da beti. Zergatik ez hor sartu genion. Aurten azpimarratzeko moduko zerbait gertatu da; jende desberdin piloa elkartu dela gauzak egiteko. Sagardo Egunaren Lagunak taldekoekin batera, baserriarren kooperatiba, Usurbilgo sagastien enpresa, Itaya, sortu berri dugun Sagardoaren



Jakoba Errekondok larunbat honetan gidatuko duen ibilaldi batekin hasiko dira Sagastiak Loretan jardunaldiak.

## SAGARDOA, SAGASTIAK...

*“Paisaiaren eta kulturaren parte dira, baina era berean lanpostuak sor ditzakete”*

Unibertsitatea... batu dira. Arlo desberdinetan lanean ari den jendea elkartzea, giro berri horren adierazgarria da.

## Eta indarra ematen dio egitarauari?

**J. E.** Gainera joan den astean aurkeztu zen Euskal Herriko Sagardo eta Sagarren kultura eta turismoaren elkarte berria, Bizi Sagardoa. Eta ekimen hau baita ere, ekimen sorta honen barruan sartzen dugu eta hori ere aipatzekoa da.

## Antolatzaileen artean badira, agian herritarrentzat ezezagunagoak izan daitezkeen eragileak.

**J. E.** Gehienak ezagunak dira. Antolatzaile berri bezala, Sagardoaren Unibertsitatea dugu. Oraintxe sortu dugun elkarte bat, sagardoaren inguruko ikerketa, hezkuntza, dibulga-

zioa, argitarapenak eta abar sustatzeko. Egitasmoa hasierako fasean dago, baina gure ustez etorkizunean garrantzitsua izango da. Usurbilen kokatua egongo da.

## Ekitaldien artean ikerketa aurkezpen bat ere badago.

**J. E.** Iaz burutu eta aurten bukatu da, eta laster aurkeztuko da. Alkartasuna Kooperatibak Udalaren laguntzaren bidez, Usurbilgo sagastien egoeraren ikerketa egin du; etorkizunera begira sagasti horiek dituen jendeak zer asmo dituen... Gure ustez bide horri jarraitu behar zaio. Sagardoaren mundua eta Sagardo Eguna ere horrela sortu zen bere garaian, ez bakarrik sagardoaz gozatzeko, baizik ikasteko, etorkizuna diseinatzeko, gehiago jakiteko...

## Bertako sagar eta sagastiak izango dira ekitaldi sorta honetako protagonistak?

**J. E.** Herrian egiten diren produktuak. Ez baita bakarrik sagardoa egiten, esan bezala, muztioa egiten da, bai era konbentzional eta ekologikoan, sagar dultzea egiten da. Etoriki-

zun handiko produktuak dira. Paisaiaren eta kulturaren parte dira, baina era berean lanpostuak sor ditzakete. Eta baserriari beste bide batzuk irekitzea ahalbidetzen du.

## Etorkizunari begira beraz, badira hainbat egitasmo?

**J. E.** Gure ustez, sagarrak eta sagardoak orain arte izan ez duten panorama dute. Ate berriak irekitzen ari dira eta gu ere horretan saiatzen ari gara.

## “Iazko sagardoa, aspaldiko urteetako onena”

### Aurtengo sagardo berria nolako dator, Sagardo Egunaren atari honetan?

**Jakoba Errekondo.** Ni ez naiz hasiko esaten aurten ere sagardo ona dugu, ez. Baina iazko sagardoa aspaldiko urteetako onena da. Sagardurte oso ona izan zen, urte lehorra. Eta hemen sagarrak eta sagarrondoek duten arazo nagusia hezetasuna da, horrek gaitzak ekartzen dituelako. Sagardurte lehorra izateak, uzta ez izugarria izatea ekarri du. Ur falta horrek uzta murriztu egiten du, baina kalitatea asko areagotzen du. Aurtengo sagardoak oso onak direla uste dut.



Aurtengoa ere oso ona izango dela uste du Errekondok.

# “Gure lorategirik onenak sagastiak dira”

**Ekitaldi sorta honetako lehen hitzordua larunbat honetan izango da, zuk gidaturiko ibilaldia.**

**Jakoba Errekondo.** Gure asmoa da, Usurbilen ditugun sagasti batzuk bisitatzea eta ez sagastiak bakarrik, sagasti horien inguruneaz, hau da Usurbilgo paisaia orokorrean ezagutzen hastea. Duela gutxi, Itayak sustatuta, Andatzako basoak ezagutzeko ibilbide bat antolatu zen. Bertan behe-geratu zen eguraldiaren kaxkarragatik. Baina gure asmoa da, hortik segitzea. Sagastiak Loretan ospakizun honen barruan gure asmoa da sagastietaz hitz egitea, bere testuinguruaz, paisaian nola txertatzen diren, sagastiak nola sortzen diren, nola funtzionatzen duten. Zehaztu gabe dago ibilbidearen nondik norakoa. Baina jendea animatu nahi nuke, inguruan dugun paisaiari beste begi batzuekin begiratzea, ikasteko aukera polita izango baita.

**Aginagako Sariaandi baserria ezagutzeko aukera egongo da. Zergatik izan liteke interesgarria bisitaldi hau?**

**J. E.** Sariaandi baserria Euskal Herriko lehenengoetako baserria da. Aurreneko baserriak, XVI. mendean sortzen dira. Sagardoak egiteko makinak ziren. Horren adierazgarri eza-gunena Igartubeitin daukagu, Euskal Herrian eta mundu osoan martxan dagoen bakarra. Eta Sariaandi baserria, tipologia horretako baserria da. Pen-



Sagastiak nola sortzen diren azalduko da larunbateko ibilaldian.

## BISITA GIDATUAZ

**“Sariaandi Euskal Herriko lehenengoetako baserria da; sagardoak egiteko makinak ziren”**

tsatu behar dugu garai hartako paisaia kulturala eta jendartearena oso desberdina zela, gaur egungoarekin alderatuta. Ontzigintzak garrantzia handia zuen, gizartea erabat industrializatu zegoen eta orduan edari horren premiak sortu zuen halako makinak sortzea. Zortea dugu, Usurbilen halako baserri dezente ditugu. Eta Sariaandi zahar berritu da, tolaeren eredu hori mantenduz eta berrituz. Fatxada berria, jatorrizkoa du. Barrutik ezaugarri berezi batzuk ditu, baserri horien artean ere bakarra egiten dutenak. Jendeak ezagutu behar du. Kanpotik eta barrutik. Barruan, bi hitzalditxo egingo dira. Batetik obra horren arduraren eraman duen arkitektoak hitz egingo digu, garai hartako

baserrien tipologiaz, egurra nola lantzen zen eta abar. Eta gero nik hitz egingo dut garai hartako paisaiaz, jendea nola bizi zen, sagardoaren premia... Ondarearen ikuspegitik, Usurbilen dugun altxor garrantzitsuenetakoa da eta zaintzeko hautua egin dute jabeek. Hori txalotzekoa da.

**Amaitzeko, zergatik parte hartu ekitaldi sorta honetan?**

**J. E.** Gure kulturaren sagarrak eta sagardoak duten garrantzia eta hori dena lore batetik sortzen dela pentsatzeak bakarrik, poztu beharko gintuzke. Eta horixe bakarrik nahikoa arrazoi bada. Beti diot, guk dugun lorategirik dotorena, ez da estilo ingelesekoa, frantsesekoa edo italiarra, gure lorategirik onenak sagastiak dira. Eta ez sagarrondoak loretan direlako bakarrik, baizik eta belardiak, basoak loretan daudelako. Hori ospatzea, eta hori ikasteko eta herritarren arteko harremanak egiteko baliatzeak merezi du.

## I. Sagastiak Loretan

**Apirilak 27, larunbata**

9:30 Sagasti loretueta barrera ibilaldia, Jakoba Errekondo paisajistarekin, Alkartasuna, Usurbilgo Baserriarren Kooperatibatik abiatuta.

**Maiatzak 7, asteartea**

19:30 "Usurbilgo sagastien inbentarioa eta sagar ekoizpena" ikerketaren aurkezpena Potxoenean, Leire Jauregi Nekazaritza Ingeniararen eskutik.

**Maiatzak 15, asteazkena**

San Ixido Eguna.

**Maiatzak 18, larunbata**

17:00 Berreskuratutako XVI. mendeko dolare-baserria ezagutzeko bisita gidatua Aginagako Sariaandi baserrian, Luis Alberdi arkitektoa eta Jakoba Errekondo paisajistaren eskutik.

**Maiatzak 19, igandea**

XXXII. Sagardo Eguna, Usurbilgo plazan, egun osoz. Sutegin "Usurbilgo baserrietako dolareen argazkiak" erakusketa.

**Maiatzak 23, osteguna**

19:30 Usurbilgo sagarkien dastaketa ikastaroa Aitzagan: sagar-dultzeta, muztioak eta sagardoak...

**Ekainak 1, larunbata**

9:00 Sagastien udako inausketa ikastaro teorikoa eta praktikoa Potxoenean, Aitor Etxeandia Nekazaritza Ingeniariaren eskutik.

**Elkarlanean:**

Sagardo Egunaren lagunak elkar-tea, Alkartasuna Usurbilgo Baserriarren Kooperatiba, NOAUA!, Usurbilgo Sagastia E.M., Itaya Gazte Asanblada, Aitzaga Elkar-Tea, Sagardoaren Unibertsitatea, Gipuzkoako Sagardogileen Elkar-Tea, Hurbilago, Usurbilgo Udala.

**JE JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA**  
**OROKORRA**  
**Obrak eta erreformak**  
**661 804 688**  
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER**  
**ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**  
 Kale Nagusia 10, 1.C4  
 Tlf 943 37 08 78  
 20170  
 USURBIL

## Nafartarrak taldearen hitzaldi sorta

**I**ndependentziaren ibilbide orria izeneko hitzaldi zikloa antolatu du Nafartarrak taldeak, asteazken honetan hasi eta ostiralera bitarte. Saioak 19:00etatik aurrera burutuko dira Sutegiko auditorioan. Sarrera doakoa izango da. Solasaldietako izenburuak honako hauek dira: "Catalunya", "Nafarroarik gabe independentzia?", eta "Iparraldeko ELB sindikatuak 30 urte: aurkezpena". Zikloa, Usurbilgo Gaztetxean Iparraldekoekin burutuko den afari batekin eta Odolaren Mintzoa taldekoen kontzertuarekin amaituko da. Afaritarako txartelak 15 eurotan egongo dira salgai. Hauxe egitaraua:

### Apirilak 24 asteazkena

■ 19:00 Hitzaldia Sutegin: "Catalunya". Hizlaria: Mario Zubia-ga.



Pako Aristi idazlea, ostegun honetan hizlari izango da Sutegin.

### Apirilak 25 osteguna

■ 19:00 Hitzaldia Sutegin: "Nafarroarik gabe independentzia?". Angel Rekalde, Pako Aristi, Koldo Mtz. Garate.

### Apirilak 26 ostirala

■ 19:00 Iparraldeko ELB sindikatuak 30 urte: aurkezpena Sutegin. Hizlariak: Panpi Sain-

te Marie eta Dominik Agergarai (ELB).

■ 21:30 Hitzaldi zikloaren amaiera Usurbilgo Gaztetxean: afaria Iparraldekoekin, kantu saioa eta Odolaren Mintzoa taldekoen kontzertua. Sarre-rak: 15 euro.

■ Antolatzailea: Nafartarrak kultur taldea.

### Liztor asiarraren inguruko hitzaldia Sutegin

Kezka eragiten jarraitzen du liztor asiarrak. Martxoaz gerotik maiatzera bitarte, "hasierako habiak" egiten baitituzte eta "horietako bakoitzeko erreginak beste habi bategingo du, non 200 erregina inguru sortuko dituen". laz gertatu bezala, datozen hiletotan habiren bat ikusten badugu, udaltzaingoarekin harremanetan jartzera deitzen dute. Hasierako habi hau kentzeko ere zenbait gomendio ematen dituzte; "eguzkia atera aurretik edo gorde ostean egin behar da". Poltsa batean sartu, etxean izan dezakegun edozein intsektizida bota, 20 minutu itxaron, habia kendu eta habia suntsitu behar da.

Argibide gehiago jaso nahi dituenak, ostegun honetan, apirilak 25, 19:00etan hitzaldia dute eskura Potxoenean.

<http://www.noaUA.com>

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala orain ere noaUA.com web orrian



Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean... Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

[www.noaUA.com](http://www.noaUA.com)

MERKATU TXIKIA

noaUA usurbildarren zerbitzura

# Kilometroak 2015 prestatzen hasi dira

**E**stu lehiatu ostean, seigarrenean lortu dute; 2015eko Kilometroak Usurbilen ospatuko dira. Udarregi Ikastolara-ko laguntza bilduko da Gipuzkoako Ikastolen aldeko jaialdi honetan. Udarregi Ikastolako Artezkaritza Kontseilutik, herritarrek ekimen honen prestaketa lanetan parte hartzera deitzen dituzte.

## Espero al zenuten? Nola hartu duzue Udarregin, Ikastolen Elkartearen erabakia?

Oraingoa, eskaerarekin batera Ikastolaren egoerari buruzko txostena aurkezten genuen seigarren aldia zen. Ikastolaren defentsa, alde aurretik mimos, prestatu genuen eta ilusioa eta esperantza genuen oraingo honetan lortuko genuela. Hasiera batean uste bagenuen ere gure ikastola bakarrik aurkeztuko zela, azkenean beste hiru ikastolarekin batera aurkeztu ginen (Zarauzkoa, Bergarako eta Urretxukoa); beraz aurreikusita genuen lehia baino handiagoa izango zela ohartu ginen. Honen zalantza apur bat sortu bazigun ere, defentsa sutsua egingo genuela argi eduki dugu hasieratik.

## Zergatik da beharrezkoa Kilometroak antolatzea?

Batetik, diru-laguntza iturria delako, baina ez soilik. Gure ustez, euskara eta euskal kulturaren aldarrikapenerako eta sustapenean laguntzeko; herrian ikastolaren alde lan egite-



Artezkaritza Kontseilukoek pozez eta arduraz hartu dute erronka.

### HELBURUA

**“Herriko hezkuntzaren mesedetan jarriko dugu lortuko dena”**

ko gogoia suspertzeko (jendea gerturatu, inplikatu); ikastola berritzeko (proiektu berriak bideratu...); ikastoletako proiektuak aurrera ateratzeko finantzatze iturri garrantzitsua delako, herrian martxan dagoen prozesu parte hartzailea bultzatzeko; udala eta ikastolaren arteko elkarlana sendotzeko...

## Erronka potoloa da. Zeintzuk izango dira hurrengo pausak?

Ikastolen Elkarteko Kilometroak Batzordeak finkatuta dauka antolaketa-egitura zehatz bat eta horrek berak markatzen dizkigu jarraitu beharreko pausak. Oraindik Tolosan urrian izango diren Kilometroak 2013 pasa arte ez gara antolaketa horretan funtzionatzen hasiko, baina bai lerro hauek baliatu nahi ditugula ikastolarekin batera jaiaren antolaketan aritze-

ko eta ahalik eta herritar gehien parte hartzera animatzeko. Izan ere, egun horretako jai izugarri ederra izan baitaiteke!

## Kilometroaken laguntza zertara bideratu asmo duzue?

Ikastola handitzen joan den neurrian, espazio beharrak ere handitzen joan dira eta zaharberritze lanak beharrezkoak dira ere bai; ikastolaren proiektuak arnas berria hartu eta aurrera egiteko, berritzeko, garai berrietara egokitzeko... finean herriko hezkuntzaren mesedetan etorkizun hobe bat eraikitzearen alde jarriko dugu lortuko dena!

## Batzar nagusia

Martxoaren 13ko Artezkaritza Kontseiluak, Udarregi Ikastolako urteroko ohiko batzar orokorra deitu du ostegun honetarako, apirilaren 25erako, arratsaldeko 18:00etan. Eta hala badagokio, bigarren deialdia 18:30etarako, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

## Maiatzaren 11n, MunduMOB ekimena

**H**artu eman nahi duzun mundua. Mezu hauxe zabaldu nahi dute oraingoan, 2011n Zubietako Flashmob ekimena edota iaz, koloretako haize errota erraldoia irudikatzen zuen mosaikoa eraikitzeko ekimena antolatu zuten Gipuzkoako zero zabor taldeek. Aurten, duela bi urte bezala, dantza koreografiatu baten eskutik eta eskuz esku ibiliko den mapamundi baten laguntzaz, MunduMOB izeneko ekimena prestatzen dabilta. Herri desberdinetan ospatuko da, Usurbilen maiatzaren 11n.

MunduMOB ekimenaren bidez, aldarrikapen bat lau haizeetara zabaldu nahi dute antolatzaileek; "mundua aurreko belaunaldiek jaso zuten aukera berdinetan jasotzeko eskubi-dea dugula guztiok, baina aldi berean eskubide hori berma dadin, guk ere betebeharrak dugula: ondorengoei baldintza berdinetan uztearena".

Aurreko bi urteetan falshmob eta mosaiko erraldoiaren ekimenek izandako harrera ikusita, "ziur gaude orain ere Mundumob ekimenak erantzun paregabea izango duela" diote antolatzaileek.

### Apirilak 24, asteazkena

18:30 MunduMOB ekimenari begira, ekarpenak edo proposamenak biltzeko bilera irekia, Potxoenean.

### Maiatzak 3, ostirala

19:00 Herri eragileen atximendua ikusarazteko ekitaldia eta lehen entsegua frontoian.

### Maiatzak 10, ostirala

19:00 Bigarren entsegu saioa frontoian.

### Maiatzak 11, larunbata

18:00 Mundumob grabazioa.

**LATAILLADE**  
  
**ITURGINTZA**  
 Gas, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua  
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

**txirriStra**  
 TABERNA  
  
 -Plater konbinatuak  
 -Ogitartekoak  
 -Pintxoak  
 Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Ikurriña omenduko du Udalak, maiatzaren 4an

**B**este hainbat herrietan gertatzen ari den moduan, auzitegien aginduz bandera espainiarra udaletxeko fatxadan jartzera behartu dute Usurbilgo Udala. Erabaki hau Udalaren eta herritarren gehiengoaren borondatearen aurka inposiotzat jo dute gobernu taldetik. Honen aurrean, ikurriña omentzeko ekitaldia antolatu dute, maiatzaren 4rako, 13:00etan udaletxe aurreko plazan.

"Bete behar dugun sententzia bat da. Legearen indarrez eta indarraren legeaz gauzatu den erabaki bat da. Gure gogoaren kontra, herritar gehien gogoaren eta nahiaren kontra izango da, baina bete beharra dugula aitortu behar dugu. Bestela bada kigu zer datorren", adierazi dio NOAUAri Usurbilgo Udaleko alkate Mertxe Aizpuruak.

Atzera bueltarik ez duen epaia da aipaturikoa, irmoa beraz, helegiterik aurkezteko aukerarik ematen ez duena. Udalak fatxadan bandera espainiarra jartzeko agindua, ez da gaurkoa ordea, 2011ko zen agindua, Carlos Urquijoren eskutik. Udalak agindua aintzakotzat hartu ez zuenez, Udalaren aurkako prozedura judiziala zabaldu zuten aipatu delegaritzatik. "Aipatzen ziren argudioa guk errekurritu genuen. Eta errekurtsio



Maiatzaren 4ko omenaldian herritarrek parte hartzeko deia egin du Udalak.

horren ondoren, epaia kaleratu zuen Donostiako 3. zenbakiko epaitegiak: Epaia honetan esaten dena da Udaletxea behartuta dagoela fatxadan bandera espainiarra jartzera, legeak horrela agintzen duela eta behartuta gaudela. Eta hori ez badugu betetzen, isun batez gain, alkatea inabilitatua izango litzateke", gaineratu du.

Epaia berri urte hasieran izan zuten, baina Udalak helegitea aurkeztu zuen. "Bilboko auzitegi nagusian jarri genuen helegitea. Eta hori da laster ateratze dagoen sententzia", berri eman dute Udaletik. Epaia hau bai, irmoa izango da, ezingo da helegiterik tartekatu. Honenbestez, Udalak epaia kaleratu eta egun batzuetako tartea izango du, "bandera espainiarra udaletxeko fatxadan jartzeko".

## Balkoietan ere, ikurriña jartzeko deialdia

Gobernu taldetik aurreratu dutenez, "ikurriña behar duen lekuan jarriko dugu. Eta era iraunkor batean geldituko da ikurriña ikusgarri, Usurbilgo herriak ikus dezan". Udaletxe aurrean bakarrik ez, maiatzaren 4an etxetako balkoietan ikurriña jartzera deitzen dituzte herritarrek, "udaletxe aurrean egingo den ekitaldi puntual bat izan ez dadin, ikurriñaren aldeko herri osoaren jarrera baizik".

## Mozioa, "inposaketa" salatzen

Ikurriñari egingo zaion omenaldia- ren aurretik, mozio bat aurkeztuko du gobernu taldeak, apirilaren 30ean, arratsaldeko 18:00etan hasita burutuko den osoko ohiko bilkuran, "inposaketa salatuz eta ikurriña gure bandera dela azpimarratuz".

# Jexux Artzeren omeneko ekitaldiak, maiatzaren 3tik aurrera

**J**exux Artze Kultur Elkar- teak prest du aurtengo egitaraua. Hona hemen hitzorduon aurrerapena, zehaztasun gehiagoren berri datorren astekarian emango dugu.

## Maiatzak 3, ostirala

■ 22:00 "Bypass" filma Sutegin. Sarrerak: aurrez salgai, 3 eurotan Lizardin.

## Maiatzak 4, larunbata

■ 22:00 Petti, Harkaitz Cano eta Joxan Goikoetxearen "Gau beranduan" saioa Sutegin. 8 euro alde aurretik Lizardin, 10 euro egunean bertan.

## Maiatzak 11, larunbata

■ 22:00 "Hil arte bizi" antzez- lana Sutegin. 8 euro alde aurretik Lizardin, 10 euro egunean bertan.



Maiatzaren 3an, 'Bypass' pelikula emango dute Sutegin.

## Txipiroien Tipi-Tapa, maiatzaren 5ean

Hurbilago Elkar-teak antolatuta txipiroiekin eginiko pintxo bereziak dastatu ahal izango dira maiatzaren 5ean, Bordatxo, Aitzaga, Txiriboga, Artzabal eta Txapeldun tabernetan.

## Haur Eskolako matrikulazio epea

Apirilaren 26ra arte iraungo du matrikulazio epeak. Haur Eskolako ordutegia honakoa da: 7:30-17:00. Hitzordua eskatzeko 943 37 40 61 zenbakira deitu, goizez: 9:00-11:00. Matrikulazio epe honen baitan, Ate Irekien Eguna antolatu dute. Apirilaren 24an, 17:00etan euskaraz, eta 18:30etatik aurrera, gaztelaniaz.

## Andatza Eguna, maiatzaren 5ean

Maiatzeko lehen igandean ospatzen da, usurbildar eta zizurkil- darren elkarlanari esker. Goizeko 11:00etatik aurrera erromeri giroa izango dugu Andatzen.

## "Pyrenaeus"-en aurkezpena

Egitasmo hau eta bigarren jardunaldiak aurkeztuko dira, maiatzaren 4an, 11:00etan Artzabalen.

## Usurbilgo XXXXI. Pilota Txapelketa

Apirilak 27 larunbata  
10:30 Aginaga, Nagusiak  
Iriondo-Murgiondo (Azpeitia)  
Bengoetxea-Etxeberts (Usurbil, Bidegoian)

Atxotegi-Aldape (Elgeta)  
Loitegi-Gurutzealde (Urnieta, Astigarraga)  
Goikoetxea-Mendia (Beasain)  
Lizaso-Erreka (Erreal)

Apirilak 28 igandea  
10:30 Usurbil, Nagusiak  
Esna-San Sebastian (Hernani)  
Rodriguez-Intxausti (Zumarraga)

Ezkurdia-Bergera (Irurtzun)  
J.Urbieta-Biain (Usurbil)

Urmeneta-Aranburu (Añorga, Erreal)  
Urkizu-Jauregi (Añorga)

## Hasi prestatzen, Usurbil Cup-erako



Usurbil Cup txapelketako partaideak, duela bi urteko argazkian.

**A**ldaketarik ez bada, maiatzaren 17an hasiko da aurtengo Usurbil Cup. Bi aste lehenago, maiatzaren 3ra arte irekita dago jada, Usurbil FT-k antolaturiko kirol ekimenean izen emateko epea. Oiaro Kiroldegian eskugarri daude apuntatzeko orriak eta bertan eskatzen diren datuak bete beharko dira. Horrekin batera, 60 euroko ordainagiria aurkeztu beharko du talde bakoitzak. Taldeak, gutxienez 8 jokalarikoak izan beharko dute, gehienez hamarrekokoak. 18 urtetik gorako arduradun bat izan beharko du jokalaria multzo bakoitzak. Usurbil Cup Txapelketan aritzeko, parte hartzaileek usurbildar-

rrak izan beharko dute. Talde bakoitzeko jokalarien hiru laurdenak, herriko eskoletako ikasleak. Talde mistoak osatu daitezke. Nesken arteko txapelketa antolatzea ere ez du baztertzen Usurbil FT-k, beti ere nahikoa talde parte hartzaile baldin badaude.

Kategoria hauetako taldeek parte hartu ahal izango dute hastear den Usurbil Cup txapelketan:

- LH 1-2 minibenjaminak (talde mistoak).
- LH 3-4 benjaminak.
- LH 5-6 alebinak.
- DBH 1-2 infantilak.

## Paleta goma txapelketan parte hartzeko epea ireki da

**B**i aste barru hasiko da txapelketa eta partidak astean zehar izango dira, arratsaldez. Lehiaketa-sistema bikote kopuruaren arabera zehaztuko da. Izena emateko, 943377 110 telefono zenbakira deitu behar da astean zehar, goizez, edo email bat idatzi helbide honetara: [parekidetasuna@usurbil.net](mailto:parekidetasuna@usurbil.net). Paleta goma txapelketa honetan, usurbildarrek bakarrik parte hartu ahal izango dute.

**Norentzat:** 18 urtetik gorakoentzat.

**Noiz:** Maiatza erdian hasi eta Santixabeletan amaitzeko.

**Izen-ematea:** Maiatzaren 3a ostirala, azken eguna.

**Baldintzak:** bi pilotariren izenak eman behar dira.

**Gizonezkoen mailan,** paleta gomaz jokatuko da.

Partidak igande arratsaldetan 17:30etik aurrera



Maiatzaren 3an amaituko da izen-ematea.

izango dira. Lehiaketa sistema bikote kopuruaren arabera zehaztuko da. Izena emateko: 626 110 923 zenbakira deitu.

**Emakumeen mailan,** txapelketa jokatuko da bi mailetan:

-Gomazko pelotarekin.

-Teniseko pelotarekin.

**Antolatzailea:** Usurbilgo Pilota Elkarte.

### Futbito Txapelketa bueltan, ostiral honetan

Aurrerantzean, ostiralero jokatuko dira neurketak pilotalekuan, iluntzeko 20:00etan hasita. Mutilen hamar talde osatu dira aurtengo ediziorako, nesken beste lau. "Nesken parte hartzea bultzatzeko asmoz, aurten neska eta mutilen ligak bereizi dira eta funtzionatu du", berri eman dute antolatzaileek.

### Udaberri Txapelketa

**Apirilak 25 osteguna, Aginagan 21:00**

Eskuz banaka lauterdian, Nagusiak ZENDOIA- URMENETA

**Apirilak 26 ostirala, Aginagan 20:00**

Eskuz banaka lauterdian, Jubenil 2. maila PORTULARRUME-REZUSTA IRAZUSTA-LARRAURI

**Apirilak 27 larunbata, Aginagan 13:00**

Eskuz banaka lauterdian, Nagusiak KATALINA-MAIZA

### Futbol partidak Haranen

**Apirilak 27, larunbata**

11:00 Infantil mutilak F-11.

15:30 Regionala.

**Apirilak 28, igandea**

9:15 Kadete areto futbola.

**Maiatzak 1, asteazkena**

11:00 Alebin federatua.

### Eskubaloit partidak

**Apirilak 27, larunbata**

18:30 Senior mutilak, 2. nazionala

(lagunartekoa): Atez Ate Usurbil-Arrasate

**Apirilak 28, igandea**

10:30 Infantil neskak

Udarregi B Usurbil-Aiala Zarautz

11:45 Infantil mutilak

Udarregi Usurbil-Eibar Eskubaloia.

### Gipuzkoako selekzioarekin

**Apirilak 28, igandea**

10:00-12:00 Jubenil nesken taldeko Leire Furundarena, Ordiziako Majori Kiroldegian.

**Apirilak 28, igandea**

9:30-11:30 Infantil mutilak Urrietako kiroldegian: Eneko Iribar.

**ETXEBIZITZA**

**Salgai**

Atiko batsalgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeke modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinea. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalfakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbarra handia. Lehen 240.000 euro, orain 200.000 (negoziagarriak). 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugun (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzen jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

**Alokairuan**

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943371495 - 695767821-657711335

Gela bat alokatzen da dena berritua kaxkoan, gizaseme langile jubilatua bati. Etxe lasaia. Atzerriarrik ez. Tel. 687 348 223.

Pisua alokatzen da kaxkoan. 3 gela, 2 komun, sukaldea, egongela, trasteroa, garajea eta igogailuarekin. Tel. 656 783 228.

Etxe bat alokairuan Atxegalden. Tel. 659 921 235.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratztea egiteko aukera. 665 720 913.

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekinetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

**MOTORRA**

**salmenta,**

**garajeak**

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cvsalgai. 2006koa, 151.000km,

gris iluna. 650919065.

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiarrena 10ean. Tel. 620 024 663.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaerak**

Klase partikularrak ematen dituz ikasturtean zein udan. Irakas-kuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nitzuzko goizein arratsaldean. Irakas-kuntzan diplomata. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia dituz. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein orduetan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsu eta formala etxeke lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako orotar. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen dituz 672 427 870.

Goi mailako ingenierritza ikasketak egin dituz.

Euskara klaseak ematen dituz. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte dituz. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeke lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsaldean, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten dituz txukun eta modu onean: 677



**Zorionak Uxue!**  
8 urte beteko dituzu apirilaren

24an. Ondo pasa, aitatxo, amatxo eta Peruren partez.



**Zorionak Markel!**  
3 urte beteko dituzu maiatzaren 2an.

Zorionak eta muxu potolo bat etxeke partez!



**Zorionak Malen!**  
Dagoeneko 13 urte beteko dituzu apirilaren

27an. Zorionak eta muxuak etxeke guztien partetik!!! Ondo pasa zure eguna!

**Heriotzak**

**Maria Landa Larburu**  
Apirilaren 18an hil zen, 77 urterekin





443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Espereintzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketara lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, interna moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo

zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko, klase partikularrak emateko. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritza eta Haur Hezikuntza diplomata. Esperientzia. 652712099.

### Lan eskaintzak

Zubietan, emakumea behar dut etxeko lanak egiteko. Lanaldia erdia edo herena. Tel. 695 783

202.

Usurbil aldean komertzialak behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. 943374330

### BESTELAKOAK

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak

hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

Mendiko jertse gorri bat galdu nuen Andatzen. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko nioke, Udaltzaingoa utziz edo deitu: 667 830 484.

Hiru metroko sofa salgai, "beslorarekin". 400 euro (negozia-garriak). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezioa. Tel. 600244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gasze usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian... 639 469 577.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

### TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haurjokoak, liburuak, kirol materiala, ispiluak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene-tostialera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala . . . . .	943 371 951	Abere-Landare Babeslea . . . . .	943 376 650
Atez ateko bulegoa . . . . .	900 776 776	Taxia (Angel) . . . . .	607 928 770
Udaltzaingoa . . . . .	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz) . . . . .	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada) . . . . .	943 370 148	Eusko Tren . . . . .	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea . . . . .	697 919 516	LurraldeBus . . . . .	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak . . . . .	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua . . . . .	943 362 894
Diputazioa - Basetxea . . . . .	943 361 215	Anbulategia . . . . .	943 362 013
Bake Epaitegia . . . . .	943 372 336	Oa botika . . . . .	943 376 076
Udarregi Ikastola . . . . .	943 361 216	Iturralde botika . . . . .	943 363 395
Haur Eskola . . . . .	943 374 061	DYA . . . . .	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola . . . . .	943 364 600	Gurutze Gorria . . . . .	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra . . . . .	943 372 077	Emergentziak . . . . .	112
Hastapen tailerrak . . . . .	943 360 465	Genero-indarkeria, arretra . . . . .	900 840 111 / 016
KZgunea . . . . .	943 023 684	Gonzalez Ehorzetxea . . . . .	943 362 163
Oiardo Kiroldegia . . . . .	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa . . . . .	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia . . . . .	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala . . . . .	943 364 740
Zumarte Musika Eskola . . . . .	943 371 594	Banco Guipuzcoano . . . . .	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia . . . . .	607 609 379	Banco Popular Español . . . . .	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa . . . . .	943 365 249	BBVA . . . . .	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza . . . . .	943 368 770	Caja Rural Kutxa . . . . .	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza . . . . .	943 371 751	Argindarra - Iberdrola . . . . .	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza . . . . .	943 366 340	Gas naturala - Naturgas . . . . .	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia . . . . .	943 361 239	Telefonica . . . . .	1004
NOAUA! Kultur Elkartea . . . . .	943 360 321	Euskaltel . . . . .	900 840 840

## Goardiako farmaziak apirilak 25-maiatzak 5

**Osteguna 25** GANDARIAS-URIBE Iñigo de Loyola 9 Lasarte

**Ostirala 26** ORUE Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

**Larunbata 27** ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Igandea 28** ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Astelehena 29** DE MIGUEL Kale Nagusia 32 Lasarte

**Astearte 30** RODRIGUEZ K. Nagusia 42 Lasarte

**Asteazkena 1** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

**Osteguna 2** ACHA-ORBEA Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Ostirala 3** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

**Larunbata 4** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

**Igandea 5** URBISTONDO San Franzisko 1 Lasarte

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00etatik  
13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8  
(Antziola). Hernani. 943 336 022  
22:00 - 09:00

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**Otar-Goxo**  
Elkargiak  
Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

Andoni Errazkin  
**Xukin**  
igeltseritza orokorra  
Barne eta kanpoko lanak  
**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65

**WWW.NOAUA.COM**  
USURBILGO ATARIA

# Agenda apirila

## 26 ostirala

- **"Iparraldeko ELB sindikatuak 30 urte: aurkezpena Usurbilen"** 19:00etan Sutegin. Ondoren **afaria**, kantu saioa eta Odolaren Mintzoa taldekoen kontzertua gaztetxean.
- **Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

## 27 larunbata

- **Sagastiak Loretan ospakizuna: sagastietara ibilaldia** goizeko 9:30ean Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatibatik abiatuta. Gidaria: Jakoba Errekondo.
- **Usurbilgo I. Dantzaren Eguna.** Egun osoz.

## 28 igandea

- **"Bi arreba" emanaldia.** Sutegiko auditorioan, 19:00etan. Sarrera: 10 euro Usurbilgo Txiriboga tabernan, NOAUA!n eta egunean bertan. Bazkideek 8 eurotan, aldezturik eta soilik NOAUA!ko bulegoetan.

## Kantu-jira berezia, larunbateko Dantza Egunean

**H**errian dantzaren inguruan jarduten duten taldeak bilduko ditu, larunbat honetan, apirilaren 27an ospatuko den Usurbilgo Dantzaren Eguna. Egungo dantzariak, atzokoak, zaletuak, herritarrak... Antolatzaileek parte hartzea animatu nahi dute jendea. Tartean, egitarau honen baitan ospatuko da apirilako kantu-jira. Saio berezia izango da honakoa; Dantza-Kantu-Jira.

Ohiko hitzordua izango du, 19:00etan abiatuko da frontoitik. Baina oraingoan, abesten eta dantzan aritzeko aukera egongo da, Kantu Taldeak berri eman dutenez: "19etan aterako da frontoitik, "7 jauzi" dantzatu ondoren. Bertan, pare bat abesti kantatu eta gero, DANTZA KANTU JIRA hasiko dugu. Beraz, kalean zehar, Kantua eta Dantza nahastuz ibiliko gara. Dantzak, MUXIKOak izango dira. Ggb, bi kantu eta Muxiko bat gunero", adierazi dute antolatzaileek. Herritarrak parte hartzea animatzen dituzte.

### Apirilak, 27 larunbata

Egunean zehar, Tximeleta soinketa erritmikoko taldeen topaketa Oiarde Kiroldegian:

- **10:00-11:30** Benjaminen topaketa.
- **12:00-13:30** Alebin eta infantilen lehiaketa.
- **13:30** Sari banaketa.
- **16:30-18:00** Benjaminen topaketa.



19:00etan abiatuko da kantu-jira.

- **11:30** Kalejira trikitilariekin udaletxetik abiatuta, dantzara animatzen diren pertsona guztiekin.
- **12:30** Usurbilgo dantza ondarearen transmisio ekitaldia frontoian: Usurbilgo Dantza Taldearen lehena eta oraina lotuko dituen ekitaldia. Ondoren, euskal dantzetako arropen erakusketa-aren irekiera Sutegin.
- **17:30** Usurbilgo Dantza Talde ezberdinen erakustaldia frontoian. Parte hartzaileak: Tximeleta soinketa erritmikoko taldeak, Dantza orientalen taldea, Warda Mallal irakaslearekin, Gaztetxeko dantzariak, Usurbilgo Dantza Taldea, Muxikoak.
- **19:00** Kantu jira, frontoitik abiatuta.
- **22:00** "Sorginetxe" ikuskizuna frontoian: Zumarte Abesbatza, Usurbilgo Dantza Taldea, Ixabel Agirresarobe eta Tximeleta Soinketa Erritmikoko taldeak elkarlanean sortutako ikuskizuna.

### Datozenak

#### Leonerako bidaia antolatu du Gure Pakea elkarteak

Ekainaren 2tik 7ra Leon aldera joateko gonbita luzatu dute Gure Pakea elkarteak. Interesdunek bidaia honetan izen emateko aukera dute jada, maiatzaren 7ra arte, aipatu elkarteak Artzabalen duen bulegoan. Bertan jaso daitezke esku orriak eta baita informazio gehiago ere. Bidaiaaren prezioa, 375 euro pertsona bakoitzeko (131 euro banakako gehigarria). Ekainaren 2an abiatuko dira Usurbildik autobusez, Leonera. 7:45etan jarri dute biltzeko hitzordua, Zendoia aurreko geltokian. Lekuok bisitatuko dituzte:

- Ekainak 2: Usurbil-Leon.
- Ekainak 3: Zamora-Toro.
- Ekainak 4: Leon.
- Ekainak 5: Las Mendulas-Astorga.
- Ekainak 6: Villafranca del Bierro-Carracedo-Ponferrada.
- Ekainak 7: Gaztela Leon-Usurbil.



Artzabalen eman behar da izena.

**Errazkin S.L.**  
igeltzeritza orokorra  
943 24 01 76 eta  
649 435 470  
errazkinsl@euskalnet.net  
Oztaran auzoa 33, URNIETA

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**Patri Jatetxea**  
K/nagusia 14. © 943 362 725

**ARRANDEGIA PELLO**  
PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL



# LASARTE-USURBIL INSTITUTUA

Zure  
au  Era



- **D.B.H.**
- **BATXILERRA**

**AURREMATRIKULAZIOA**  
maiatzaren 2tik 14ra



lasarte-bhi@instilasarte.net • Buenos Aires aldapa, 1 - LASARTE-ORIA Tel.: 943 372 852 / 943 372 277

[www.ieslasarte-usurbilbhi.hezkuntza.net](http://www.ieslasarte-usurbilbhi.hezkuntza.net)

# Bi arreba

Chopin eta Xenpelar

Pianojolea: Xabier Lizaso  
Bertsolaria: Andoni Egaña

**BERTSO MUSIKATUA**  
**APIRILAK 28, IGANDEA**  
**SUTEGIN, 19:00**

**noava**



Sarrera: 10€ (Usurbilgo Txiriboga tabernan, Noava!ko egoitzan eta egunean bertan) Noava!ko bazkideek 8€ tan erosi ahal izango dute Noava!ko egoitzan aldezturik.

# EDERTU ZAITEZ!

**Loli Lizarralde**  
ESTILISTA



**L'ORÉAL PROFESSIONNEL**

**Steam pool**  
BERRIA  
BAPORE BIDEZ ORRAZKETA

**\*EZ DUGU BEZ-A (IVA) IGO!**

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

**NEW ESTETIKA**

**FOTODEPILAZIOAN  
TARIFA FINKOA  
PREZIOAK ZURE ESKURA!  
KONPROMISORIK GABE  
INFORMA ZAITEZ!**



munalurra 2, Usurbil 943 571 680



**Ane**  
ILEAPAINDEGIA

*Artzabal*

**JUBILATUENTZAT  
AUKERA ONENA**

artzabal baserria 626603600

**INTZA**  
ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA ZENTROA

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN  
ESTILISMOA ETA ESTETIKA  
LANTZEN DITUGU

**WELLA**-ren eskutik, Kolorazio munduan emandako pausorik handienetakoa aurkezten dizugu:

**ILLUMINA Kolorazioa**

- ✓ ILEAN, BESTE EDOZEIN KOLORAZIOAK BAINO %70 GEHIAGO ISLATATZEN DU ARGIA
- ✓ %100 ESTALTZEN DUTEN KOLOREAK
- ✓ BABES HAUNDIAGOAK DUTEN KOLORE NATURALAGOAK

Egun osoa irekita! Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41

**Elexpe**  
ileapaindegia



Betileen tintaketa eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462

**GOLDWELL ELUMEN**

**mistoa**

Koloraziotan teknika berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951